**Bilboko Talde Antimilitarista (KEM-MOC)**
**Fika 4, eskumako lonja 609 46 95 99 eta 94.415.37.72**
betxea@yahoo.es

# MUNGIAKO SOIETXEKO KUARTELAREN AURKAKO IBILALDIA, GIZARTEAREN DESMILITARIZAZIOAREN ALDE

Maiatza iritsi da, eta, bide batez, loraldia eta Mungiako Soietxe Kuartelaren aurkako ibilaldia. Gure aldarrikapenak adin-nagusitasuna lortua du; izan ere, 19 urte daramatzagu dagoeneko Soietxeko instalazio militarraren desagerpena aldarrikatzen. Zaharkitua eta anakroniko, Soietxeko kuartelak hartzen duen lursailaren berrerabilpen soziala aldarrikatzen dugu. Lehen hortuak zeuden eremuan, Francok kuartel bat ezartzea erabaki zuen, eta nekazariei jabetza kenduta eraiki zuten halabeharrez. Han egon beharrekoa argi azaltzen du gure betiko leloak: “Bota kuartelie eta erein porrue!”.

Jakina da zer funtzio betetzen duten armadek mundu globalizatuan: ekonomia oparoenen eta behartsuenen arteko aldeari eutsi, Lehen Munduko interes geoestrategikoak blindatu eta aberatsak aberasten dituen eta pobreak pobretzen dituen sistema ekonomikoa iraunarazi. Armadak dira alde edo desberdintasun hauei eusteko bermea, eta eraikuntza militarrek ematen diete babesa esplotatzaileen bizkartzainei. Estatuak 23.052 milioi euro xahutzen ditu urtero halako instalazioen mantenuan nahiz halakoetan dauden jostailu hilgarrietan (3,8 bilioi pzta.); Ingurumenerako aurrekontua halako 10, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurarako aurrekontua halako 13 edo Kulturarako aurrekontua halako 32, esaterako (datu horiek estatuko aurrekontu orokorretik lortuak dira). Xahutzaile horiei, gainera (63 milioi euro eguneko), dominak jartzen dizkiete.

Horrenbestez, beste behin, armaden desagertzea aldarrikatzen dugu; eskatzen dugu eraikuntza militar guztiak desmuntatzea, helburu sozialetarako berrerabiltzea eta uniformedun horiek xahutzen duten dirutza gizarteak benetan dituen beharretan inbertitzea; ez, ordea, gerrarako makinetan, eraso-fusiletan edo blindatu arinetan.

Aurten, berrerabilpen sozial baten adibide gisara, argi daukagu Soietxeko koartela 2012ko Joko Olinpikotarako hautagai izan daitekeela, eta gure apustuaren adierazgarri modura, zenbait kirol proba antolatu ditugu. Hainbat herrialdetatik etorri dira kirolariak gurera gainera; kirol erakustaldia ikusgarria izan da, anitza, dibertigarria eta originala. Ikustekoa benetan!

## BOTA KUARTELIE ETA EREIN PORRUE!!

**Grupo Antimilitarista de Bilbao (KEM-MOC)**
**Fika 4, lonja dcha. 609 46 95 99 y 94.415.37.72**
betxea@yahoo.es

# MARCHA CONTRA EL CUARTEL DE SOIETXE (MUNGIA) POR LA DESMILITARIZACIÓN SOCIAL

Llega mayo, las flores y la marcha contra el cuartel de Soietxe en Mungia. Nuestra reivindicación ya ha cumplido la mayoría de edad, tiene 19 años, exigiendo la desaparición de esta instalación militar, obsoleta y anacrónica a todas luces, y a la vez pedimos el uso social de los terrenos que ocupa. Donde antes había huertas, a Franco se le antojó poner un cuartel y vía expropiación plantaron este mamotreto ahí, cuando lo que habría que plantar es lo que dice nuestro clásico slogan: "Bota kuartelie eta erein porrue" (¡Abajo los muros de los cuarteles, plantemos puerros!)

Todo el mundo sabe para qué sirven los ejércitos en un mundo globalizado: para mantener las diferencias entre las economías opulentas y las miserables, para blindar los intereses geoestratégicos del Primer Mundo y mantener el sistema económico que hace a los ricos más ricos y a los pobres más pobres. Los ejércitos son los garantes de que estas diferencias se mantengan y las instalaciones militares son los cubiles donde se cobijan los escoltas de los explotadores. Para mantener esas instalaciones y los juguetes mortales que albergan, el Estado gasta 23.052 millones de euros al año (3,8 billones de pesetas), 10 veces más que para Medio Ambiente, 13 veces más que para Agricultura, Pesca y Alimentación o 32 veces más que para Cultura, por poner unos ejemplos (los datos han sido extraídos de los presupuestos generales del Estado). Y luego a esos despilfarradores (63 millones de euros al día), les ponen medallas.

Así que una vez más pedimos la abolición de los ejércitos, el desmantelamiento y posterior reciclaje para fines sociales de todas las instalaciones militares, y que los gastos que generan los uniformados se inviertan en lo que de verdad necesitamos, que poco tiene que ver con máquinas de guerra, fusiles de asalto o blindados ligeros.

Este año, y como ejemplo de uso social alternativo, teníamos claro que el cuartel de Soietxe era firme candidato a los Juegos Olímpicos de 2012, y por este mismo motivo hemos organizado en el mismo varias pruebas deportivas, que han contado con la participación de atletas procedentes de muy distintos lugares, en una exhibición deportiva que, por variada, divertida y original, ha sido, realmente, digna de ver.

## BOTA KUARTELIE ETA EREIN PORRUE!!